

## 18. ORDENANTZA

# Ordenantza fiskala, Udalaren lokalak erabiltzeko prezio publikoak arautzen dituen

### Oinarria

**1. artikulua.** Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikuluko baimenaren babesean.

### ORDAINDU BEHARRA NOIZ SORTZEN DEN

**2. artikulua.** Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da baimena ematean eta ordaindu beharko da ekitaldia egin baino bi egun lehenago gutienez.

**3. artikulua.** Interesdunak erabiltzeari uko egin ahal izanen dio ekitaldirako ezarritako data baino hogeita lau ordu lehenago, eta kasu horretan prezio publikoaren % 50 itzuliko zaio.

### ORDAINTZERA BEHARTUAK DAUDENAK

**4. artikulua.** Udalak aipatu lokalak erabiltzeko baimena nori ematen dion, haiexek daude beharturik prezio publikoa ordaintzera.

### ERABILERA

**5. artikulua.** Baimena Udaltzak udal lokalen erabilpenerako onetsitako arauen arabera emanen da.

**6. artikulua.** Jaieguntzat hartuko dira Udal honetako langileek lan egutegian halakotzat hartzen direnak.

### TARIFAK

**7. artikulua.** Lokalak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tarifak arau honen eranskinean agertzen dira, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga beren baitan izanen dute, hala badagokie.

## 2011KO TARIFEN ERANSKINA

<b>Ekitaldi aretoa</b>	
Ordubetez erabiltzeko prezioa	109,00
8 ordutik goiti, egun berean 24 ordu bitarte	607,00
Udalaren lokalak erabiltzea	87,00
<b>Clara Campoamor aretoa</b>	
Ordubetez erabiltzeko prezioa	102,00
Bi ordu	127,00
3tik 5 ordu bitarte	152,00
5etik 7 ordu bitarte	178,00
8 ordutik goiti, egun berean 24 ordu bitarte	423,00
Jaiegunetan tarifak %50 igoko dira	